



I. ATALA  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA**  
**Batzar Nagusiak**

**Bizkaiko Batzar Nagusiak**

**7/2020 FORU ARAUA, urriaren 21ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2020. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 6/2019 Foru Araua aldatzen duena.**

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek 2020ko urriaren 21eko Osoko Bilkuran onartu dutela 7/2020 Foru Araua, urriaren 21ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2020. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 6/2019 Foru Araua aldatzen duena, eta berau aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu dakiekeen herri-tar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

Bilbon, 2020ko urriaren 22an.

Ahaldun Nagusia,  
UNAI REMENTERIA MAIZ

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN 2020. URTEKO AURREKONTU OROKORREI  
BURUZKO ABENDUAREN 27KO 6/2019 FORU-ARAU ALDATZEKO URRIAREN 21EKO  
7/2020 FORU ARAUA****HITZAURREA**

Abenduaren 27ko 6/2019 Foru Arauaren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrek onartu ziren.

COVID-19aren osasun-pandemiaren ondorioz sortutako ezohiko egoera ekonomikoa dela eta, doikuntzak egin behar dira bi foru merkataritzako sozietateen zorpetzean.

Interbiak Bizkaia, A.M.B.P. sozietateak bere zorpetzearen amortizazio-aldiak aldatu behar ditu, jarduera ekonomikoa gelditzeak eta A8 autobidearen, Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidearen eta Artxandako tunelen igarobideetan izandako eraginari aurre egiteko. Hori dela eta, aldatu egin behar da Sozietate honen 2020rako zorpetze-muga, aipatutako Foru Arauaren 32. artikuluan ezarritakoa.

Euskalduna Jauregiko Sozietateak, bestalde, diru-sarrerak galdu ditu, kongresu-jarduera eta erakundearen gainerako jarduerak geratzearen ondorioz, osasun-pandemiak eragindako egoera ekonomikoren ondorioz. Egoera horri aurre egiteko, Zortzigarren Xedapen Gehigarriaren bidez planteatutako proposamena epe luzerako zorpetzea baimentzea da, ezohiko moduan inbertsioaz bestelako gastuetarako erabili ahal izateko.

Bestalde, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aplikatuz (EAO, 236. zk., 2015eko urriaren 2koa, zortzigarren xedapen gehigarria), «Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Lurralde Historikoko ...(e)ko Udalaren arteko gizarte-zerbitzu eta -programen banaketari buruzko akordioa» eta «Bizkaiko Foru Aldundiaren eta ...(e)ko Mankomunitateko/Partzuergoko kide den ...(e)ko Udalaren arteko gizarte-zerbitzu eta -programen banaketari buruzko akordioa» formulen pean sinatutako hitzarmenak, Gizartekutxa Funtsaren banaketa gaitzen zutenak, indarraldia galtzen dute 2020ko urriaren 2tik. Beraz, aipatutako Foru Arauan Bederatzigarren Xedapen Gehigarria ezarri behar da, Gizartekutxa Funtsa 2020ko abenduaren 31ra arte banatzeko eta 2021eko ekitaldian dagokion likidazioa egiteko.

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru erakundeen hautaketari, antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikuluan 1. eta 3. zenbakietan xedatutakoa betez, Foru Arau honekin batera doaz memoria ekonomikoren txostena eta generoaren araberako eraginaren ebaluazioari buruzko txostena.

Halaber, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorren testu bategina onartzen duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailean ezarritako izapideak bete dira (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, abenduaren 13koa).

**Artikulu bakarra. — 6/2019 Foru Araua, abenduaren 27koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa**

Aldaketa hauek sartzen dira Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 6/2019 Foru Arauan:

**Bat.** 32. artikulua aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«32. artikulua. — *Foru merkataritzako sozietateen zorpetzea eta finantza-eragiketak*

1. 2020. urteko abenduaren 31n, jarraian zerrendatzen diren foru merkataritzako sozietateen epe luzeko zorpetze-eragiketek sortutako zorren saldoak ezin izango ditu honako hauek gainditu:

- Azpiegiturak, A.M.B.P.: 40.000.000,00 euro.
- Interbiak Bizkaia, A.M.B.P.: 729.550.000,00 euro.
- Sestao Bai, A.B.: 12.500.000,00 euro.

2. 2020ko abenduaren 31n, jarraian zerrendatzen diren foru merkataritzako sozietateen epe luzeko merkataritza-zorpetzearen bolumenak ezin izango ditu honako hauek gainditu:



- Azpiegiturak, A.M.B.P.: 17.000.000,00 eurorainoko merkataritza-zorpetzea, etxebizitzako jarduketa-planean jasotako jardueretarako edo industria-sektorerako lurzorua sustatzeko.
- Sestao Bai, A.B.: merkataritza-zorpetzeagatik 4.923.000,00 euro.
- Garbiker A.M.B.P.: merkataritzako zorpetzeagatik 26.500.000,00 euro.

3. Foru merkataritzako sozietateek ezin izango dute hirugarrenen aldeko bermerik eman, ezta zorpetze-eragiketarik egin ere, Gobernu Kontseiluaren berariazko erabakirik gabe, Ogasun eta Finantza Sailak aurretik txostena eginda.»

**Bi.** Zortzigarren Xedapen Gehigarria gehitu da:

«Zortzigarren Xedapen Gehigarria.— *Euskalduna Jauregia, S.A. merkataritza-sozietatearen hiru urteko zorpetze-muga eta urtebeteko gabealdia (2021)*

Euskalduna Jauregia, S.A. erakundeari baimena ematen zaio hiru urteko epean 4 milioi euroko zorpetze-muga eta urtebeteko gabealdia (2021) izateko, bere jarduera nagusia finantzatu ahal izan dezan, eta, amortizatu arte, salbuetsita uzten da Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina onartzen duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen 86.2 artikuluan ezarritakoa bete beharretik.»

**Hiru.** Bederatzigarren Xedapen Gehigarria gehitu da:

«Bederatzigarren Xedapen Gehigarria.— *Gizartekutxa Funtsa, 2020ko azken hiruhilekoko konturako entregak eta likidazioa*

1. Gizartekutxa 2020 Funttsaren konturako entregak, urritik abendura artekoak, 2020ko urtariletik irailera bitarteko entregen zenbateko berekoak izango dira.
2. Gizartekutxa Funttsaren urria-abenduko behin betiko zenbatekoa Bizkaiko Foru Aldundiaren Diru-sarreraren Aurrekontuko 1etik 8ra bitarteko kapituluetan aitortutako eskubideen % 0,184aren laurdena izango da.
3. Udalerrien arteko behin betiko banaketa 2000ko ekitaldian izandako benetako gastuaren arabera egingo da. Gastu hori, alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundian egingo da, Gizarte eta Hezkuntzako Esku-hartze Planaren, Etxeko Laguntzaren eta Gizarte Zerbitzuetako langileen kontzeptuekin lotuta, eta, bestetik, Bizkaiko udaletan, adinekoen egoitzetan sartzeko kontzeptuagatik, Gizarte Ekintza Sailaren erregulazioaren bidez. Benetako gastua kuantifikatzeko, kontzeptu horiek honako formula honen bidez integratuko dira: Benetako Gastua = Esku-hartze Sozioedukatiboko Plana + Etxeko laguntza + Gizarte Zerbitzuetako langileak - Adinekoen egoitzetan sartzea.

Xehetasuna udalerraren arabera:

Udalerria Sinadura data Municipio Fecha firma	Esku-hartze Sozioedukatiboa Intervención Socio Educativa	Etxeko laguntza Ayuda Domiciliaria	Gizarte Zerbitzuetako langileak Personal Servicio Social de Base	Egoitzetan sartzeko banakako diru-laguntzak Ayudas Económicas Individuales para ingreso en Residencias	Udalari 2000 ekitaldian egotz dakioken benetako gastua Gasto Real imputable en el ejercicio 2000 al Ayuntamiento
	(1)	(2)	(3)	(4)	(1 + 2 + 3 - 4)
Abadiño	6.832,37	33.179,50	23.359,29	4.376,77	58.994,39
Abanto Zierbena	28.972,00	66.443,42	5.553,86	38.920,13	62.049,16
Ajangiz	0,00	3.721,56	1.262,25	0,00	4.983,80
Alonsotegi	21.729,00	26.550,14	45.461,82	15.400,08	78.340,88
Amorebieta-Etxano	14.486,00	103.295,91	70.706,63	30.291,36	158.197,19
Amoroto	0,00	3.790,03	5.716,33	0,00	9.506,37
Arakaldo	244,32	0,00	989,89	0,00	1.234,21
Arantzazu	608,07	2.746,57	1.709,92	0,00	5.064,56



Udalerría Sinadura data Municipio Fecha firma	Esku-hartze Sozioedukatihoa Intervención Socio Educativa	Etzeko laguntza Ayuda Domiciliaria	Gizarte Zerbitzuetako langileak Personal Servicio Social de Base	Egoitzetan sartzeko banakako diru-laguntzak Ayudas Económicas Individuales para ingreso en Residencias	Udalari 2000 ekitaldian egotz dakioken benetako gastua Gasto Real imputable en el ejercicio 2000 al Ayuntamiento
	(1)	(2)	(3)	(4)	(1 + 2 + 3 - 4)
Artzentales	457,13	8.360,63	3.023,74	4.141,36	7.700,14
Areatza	2.584,30	10.796,86	6.575,69	1.274,00	18.682,85
Arrankudiaga	2.483,90	1.407,39	6.646,42	2.514,51	8.023,20
Arratzu	657,52	3.820,57	1.816,41	0,00	6.294,50
Arrieta	470,79	7.354,17	1.916,16	0,00	9.741,12
Arrigorriaga	28.972,00	66.624,96	70.706,63	28.236,16	138.067,44
Artea	1.114,80	7.245,26	3.563,83	0,00	11.923,89
Atxondo	1.569,33	9.315,96	5.046,45	1.410,01	14.521,73
Aulesti	0,00	7.201,07	10.057,08	0,00	17.258,14
Bakio	2.017,65	10.410,45	5.650,84	3.472,92	14.606,02
Balmaseda	6.755,39	63.909,23	34.300,70	7.432,95	97.532,38
Barakaldo	246.262,04	806.534,13	303.043,54	579.493,36	776.346,35
Barrika	1.333,15	10.064,50	4.584,94	1.410,01	14.572,58
Basauri	57.944,01	310.341,59	116.168,45	216.979,53	267.474,52
Bedia	2.102,91	9.707,70	5.975,72	2.000,46	15.785,87
Berango	14.486,00	25.914,75	20.217,00	9.418,36	51.199,39
Bermeo	43.458,01	148.589,99	77.479,33	57.467,51	212.059,82
Berriatua	1.156,78	8.342,86	5.382,77	0,00	14.882,41
Berriz	14.486,00	19.655,64	14.494,86	3.594,88	45.041,63
Bilbo	688.085,12	3.020.089,31	767.717,34	3.282.313,71	1.193.578,06
Busturia	2.595,03	14.419,56	7.465,96	2.255,42	22.225,13
Karrantza Harana Valle de Carranza	2.890,09	35.379,17	14.938,32	1.852,15	51.355,43
Derio	7.922,89	17.840,44	27.078,07	4.459,46	48.381,94
Dima	1.976,23	12.454,27	6.287,70	5.941,77	14.776,43
Durango	21.124,03	152.772,57	80.976,85	22.141,56	232.731,90
Ea	0,00	10.030,05	591,49	3.251,16	7.370,38
Elantxobe	780,26	5.792,47	2.321,73	0,00	8.894,46
Elorrio	5.949,87	54.564,91	24.852,91	14.287,87	71.079,82
Erandio	57.944,01	142.508,43	116.168,45	61.401,12	255.219,77
Ereño	0,00	3.131,55	757,35	0,00	3.888,90
Ermua	28.972,00	60.444,30	109.243,81	12.822,57	185.837,54
Errigoiti	455,88	5.422,74	2.057,69	0,00	7.936,31
Etxebarri	28.972,00	30.226,31	45.461,82	6.416,65	98.243,48
Etxebarria	1.057,46	6.646,01	4.337,04	892,69	11.147,81
Forua	1.753,40	6.696,26	4.447,71	3.172,27	9.725,10
Fruiz	351,22	3.963,61	1.285,58	877,00	4.723,41
Galdakao	28.972,00	157.939,27	103.546,04	63.778,47	226.678,84



Udalerría Sinadura data Municipio Fecha firma	Esku-hartze Sozioedukatiboa Intervención Socio Educativa	Etzeko laguntza Ayuda Domiciliaria	Gizarte Zerbitzuetako langileak Personal Servicio Social de Base	Egoitzetan sartzeko banakako diru-laguntzak Ayudas Económicas Individuales para ingreso en Residencias	Udalari 2000 ekitaldian egotz dakiokoen benetako gastua Gasto Real imputable en el ejercicio 2000 al Ayuntamiento
	(1)	(2)	(3)	(4)	(1 + 2 + 3 - 4)
Galdames	523,16	10.722,39	3.816,46	5.359,30	9.702,72
Gamiz-Fika	1.292,79	9.741,89	4.015,39	629,75	14.420,32
Garai	163,72	2.065,11	826,40	0,00	3.055,23
Gatika	0,00	9.122,35	757,35	0,00	9.879,70
Gautegiz Arteaga	1.236,15	6.860,59	3.541,78	199,28	11.439,24
Gernika-Lumo	28.177,14	105.989,90	70.284,67	24.937,76	179.513,95
Getxo	57.944,01	498.552,55	212.119,90	334.187,50	434.428,96
Gizaburuaga	0,00	1.847,64	2.078,67	0,00	3.926,31
Gordexola	1.107,28	16.296,14	6.873,43	2.526,05	21.750,80
Gorliz	5.415,07	22.027,96	15.427,63	5.924,13	36.946,53
Gueñes	5.805,58	49.124,61	28.068,10	15.912,05	67.086,23
Ibarrangelu	613,69	6.038,96	2.390,02	3.582,40	5.460,27
Igorre	12.452,75	23.866,74	23.998,85	5.454,39	54.863,96
Ispaster	531,65	8.484,27	3.434,40	0,00	12.450,32
Iurreta	3.909,34	26.617,03	15.183,37	1.324,22	44.385,52
Izurtza	207,65	2.845,27	938,17	0,00	3.991,08
Kortezubi	613,69	3.902,73	1.675,29	0,00	6.191,71
Lanestosa	284,44	3.778,82	1.405,07	1.236,23	4.232,09
Larrabetzu	2.350,16	10.939,60	8.788,65	1.993,39	20.085,01
Laukiz	1.270,37	6.303,57	3.811,97	0,00	11.385,91
Leioa	65.187,01	115.504,44	90.923,64	100.703,38	170.911,71
Lekeitio	8.243,48	63.349,21	40.893,62	338,02	112.148,31
Lemoa	5.751,33	23.819,39	14.819,29	1.425,35	42.964,65
Lemoiz	865,86	9.732,18	3.630,29	2.332,73	11.895,60
Lezama	3.925,83	10.430,78	11.909,26	3.405,20	22.860,67
Loiu	2.572,71	12.720,46	9.761,31	0,00	25.054,48
Mallabia	7.243,00	7.352,34	6.924,65	2.997,03	18.522,96
Mañaria	359,39	4.497,36	1.601,99	763,30	5.695,44
Markina-Xemein	5.637,83	44.118,20	25.939,65	944,72	74.750,96
Maruri-Jatabe	7.243,00	5.128,49	2.100,98	0,00	14.472,47
Meñaka	575,40	5.778,27	1.924,29	3.974,16	4.303,80
Mendata	412,05	3.820,57	1.511,40	0,00	5.744,02
Mendexa	0,00	3.884,78	5.166,10	0,00	9.050,87
Morga	526,02	4.313,54	1.757,23	0,00	6.596,79
Mundaka	2.989,55	15.857,40	8.107,85	2.202,75	24.752,05
Mungia	22.993,78	75.356,34	52.102,40	35.659,15	114.793,37
Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz	0,00	4.879,67	6.067,87	0,00	10.947,54



Udalerrria Sinadura data Municipio Fecha firma	Esku-hartze Sozioedukatiboa Intervención Socio Educativa	Etxeko laguntza Ayuda Domiciliaria	Gizarte Zerbitzuetako langileak Personal Servicio Social de Base	Egoitzetan sartzeko banakako diru-laguntzak Ayudas Económicas Individuales para ingreso en Residencias	Udalari 2000 ekitaldian egotz dakioken benetako gastua Gasto Real imputable en el ejercicio 2000 al Ayuntamiento
	(1)	(2)	(3)	(4)	(1 + 2 + 3 - 4)
Murueta	280,54	1.848,66	919,59	0,00	3.048,79
Muskiz	43.458,01	51.421,03	15.555,46	27.395,16	83.039,34
Muxika	1.919,97	13.680,09	6.441,66	1.411,07	20.630,65
Nabarniz	0,00	3.222,33	1.262,24	0,00	4.484,57
Ondarroa	12.344,80	74.425,89	56.397,97	10.118,34	133.050,32
Orozko	5.700,74	9.836,51	17.111,01	2.193,67	30.454,59
Ortuella	24.148,16	59.772,93	15.662,36	38.505,13	61.078,32
Otxandio	762,70	9.820,77	3.542,67	5.811,99	8.314,16
Plentzia	4.274,33	25.303,67	13.649,71	5.390,81	37.836,90
Portugalete	28.972,00	362.761,09	95.951,45	365.622,17	122.062,37
Santurtzi	79.673,01	338.707,12	116.168,45	295.280,56	239.268,02
Sestao	57.944,01	270.312,15	121.196,27	147.914,12	301.538,31
Sondika	5.074,21	21.592,98	20.738,44	6.510,80	40.894,82
Sopela	16.774,36	43.106,42	41.426,46	19.109,69	82.197,55
Sopuerta	2.016,46	23.995,48	10.765,85	6.859,03	29.918,76
Sukarrieta	447,12	2.629,21	1.429,46	0,00	4.505,79
Trucios-Turtzioz	487,61	6.140,58	2.534,82	805,09	8.357,91
Ubide	266,03	1.988,89	965,95	0,00	3.220,88
Ugao-Miraballes	18.099,87	16.911,88	37.828,05	9.923,85	62.915,95
Urduliz	3.930,74	16.615,92	12.204,61	5.174,59	27.576,68
Urduña-Orduña	28.972,00	35.581,72	35.353,32	14.044,94	85.862,10
Valle de Trápaga – Trapagaran	28.972,00	88.818,15	40.701,83	83.480,33	75.011,65
Zaldibar	2.579,61	19.825,10	10.329,98	1.440,47	31.294,21
Zalla	8.644,86	54.556,65	35.686,78	11.083,87	87.804,43
Zamudio	5.474,80	15.455,36	17.675,72	3.705,04	34.900,85
Zaratamo	7.243,00	11.754,67	22.730,91	0,00	41.728,58
Zeanuri	2.115,58	15.390,26	6.809,68	2.472,47	21.843,04
Zeberio	2.443,17	3.839,91	8.131,26	3.811,11	10.603,23
Zierbena	10.864,50	10.710,82	1.514,69	1.395,87	21.694,14
GUZTIRA	2.043.294,03	8.361.343,85	3.636.210,45	6.121.170,64	7.919.677,71

Ziortza-Bolibarko desanexioa dela eta, zenbatekoa Markina-Xemein eta Ziortza-Bolibar artean banatzen da 2005eko urtarrilaren 1eko biztanleriaren arabera, hau da, Markina-Xemein: 4.383 biztanle, eta Ziortza-Bolibar: 369 biztanle.

4. Udalerriek zuzenean jasoko dituzte konturako ekarpenak eta likidazioak. Hala ere, udalerriko gizarte zerbitzuak modu mankomunatuan ematen badira, udalerrria da goen mankomunitateak jasoko ditu konturako ekarpenak eta likidazioak. Zerbitzuak



mankomunitatearen baitan ematen dituen udalerriak beti eskatu ahal izango du zuzenean jasotzea konturako ekarpenak eta likidazioak.

5. Aldundiak 2021eko ekitaldiko hirugarren hiruhilekoan egingo du likidazioa.»

**AZKEN XEDAPENA****Azken Xedapen Bakarra. — Indarrean sartzea**

Foru Arau honek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan hartuko du indarra, eta 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Batzar Nagusietako Bigarren Idazkariak,  
EMILIO LOBATO PASCUAL

Batzar Nagusietako Lehendakariak,  
ANA OTADUI BITERI